

Hats berri bat txosna-gunearentzat

Hona laburrean, jaietako txosnen historia: “Esparru alternatiboa zena asimilatu eta bertan gati-baturik, kudeatzaile bihurtu gara”. El-karte eta mugimenduei lotuta, esparru alternatiboa izateko sortu ziren bere garaian jaietan txosnak. Taldeen urteko jardunak finantzatzeko, jendea bildu eta festetan ideia desberdinen arnasa-gune izateko. Denboraren ondorioz ordea, ilusio faltagatik edo betikoaren errepikapenean galduta, txosna eredia berritzearen beharra nabarmendu da gure inguruan.

Badira ia hamar urte Euskal Herriko gazte mugimenduaren deialdi bateko karpa handi batean Nafarroa Behereko lagun laborari zenbaitekin multinazionalen edarien salmentaz mintzo ginela. Ezin ulertuz ikusten baitzuten kasik aldarrikapen heineko edari marka zapaltzaileen presentzia normalizatua. “Kausa on batentzat dirua irabazteko denak balio al du?” galdera pausatzen ziguten ohiko arrazoi ekonomiko edo enpresa haien prezioen bonifikazio argudioen aurrean.

Hortik hona, aurtengo gure herriko jaietan urrats eraginkorra eman dute gazteek, ia bere osotasunean multinazionalik gabeko janari-edari eskaintza antolatuz gaztetzeko txosnan. Baratze-



Kimetz Arana
BARATZEZAINA
@7ardi

“Kausa on batentzat dirua irabazteko denak balio al du?” galdera pausatzen ziguten ohiko arrazoi ekonomiko edo enpresa haien prezioen bonifikazio argudioen aurrean

zainok gauetako ogitartekoak egiteko barazkien horniketean zein auzolanean lagundu dugu bertan.

Jende asko elkartu du txosnak, adin eta mota guztietakoak eta zerbait aldatzen ari ginen ilusioz atxikimendua lortu du. Arratsaldero aritu gara auzo-

lanean, gauetan elikagaiak prestatzen. Jende desberdinak, nagusi zein gazteak, haur eta helduak, gaztetzearen lagunak, nekazarien lagunak, kultur, auzo elkarte edo mendiko auzotarrak. Eskaini dugu zerbait on, osasuntsu eta zapoetsua eta izan du arrakasta.

Bere bizian zer egin ez dakiena bokazio gabeko funtzionario bihurtzen den garaian, oinarrizko ofizioei balore soziala eman die ekimenak, gure auto-estima indartu eta bizitzeko beste bideak proposatu. Posible dela herrian lana sortzea ekoizleak, merkatari txikiak, langile eta mugimendu herritarrak elkartzen bagara. Hats berri bat txosna-gunearentzat praktikatik justizia aldarrikapenei lotua, elkarlanean zabaldu, kontzientziak piztu eta esparru osoa herri alternatiba bihurtu lezakeena.

Azkenean gure eskualdean, multinazional handien atzaparretatik kanpo etorkizuna izatea, gure herriaren maitasuna haurrei transmititzea, hizkuntza galdu den tokitan berreskuratzea eta guztioi eskaintzea da nahi duguna, gainontzekoa gero iritsiko den ustean.

Distantziatik esango nuke hainbat ilusio piztu duen Kataluniakoaren oinarrian badela halako zerbait. Beraz herria eraiki dezagun txikitik hasita baina ekinez, hitzetatik ekintzetara! ■

ARGIA
943 371 545
publz@argla.eus
www.argla.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen